

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

218. zenbakia

Data 2008-11-12

34095 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK 952/2008 FA 599bis/2005 aldatzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Urriaren 31eko 952/2008, FORU AGINDUA, honako hau aldatzekoa: Abenduaren 27ko 599Bis/2005 Foru Agindua, makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den jokoaren gaineko zerga helbideratze bankarioz ordaintzeko prozedura ezartzen duena.

Abenduaren 27ko 599Bis/2005 Foru Aginduak makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den jokoaren gaineko zerga helbideratze bankarioz ordaintzeko prozedurari buruzkoak, zerga horri dagozkion kuotak helbideratze bankarioz ordaintzeko posibilitatea ezarri zuen jolas edo zorizko makinekin egindako zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko tasa fiskala autolikidatzerakoan. Agindu horretan bertan, helbideratze bankarioa eskatzeko 44D eredua onartu zen, bai eta prozedura horretan alta eskaerak aurkezteko epeak eta tokiak ere.

Araututako epeak, baina, desberdinak dira egoeraren arabera: Helbideratze prozeduran alta eskatzeko epeak daude batetik, eta bestetik, helbideratu beharreko baimenen zerrendan aldaketak eskatzekoak.

Zerga honen kudeaketan izandako eskarmentuak erakutsi digu komeni dela epeak bateratzea kudeaketa hori bai Administrazioari eta bai zergadunari errazteko.

Helburu hori betetze aldera, aldaketak sartu dira 599bis/2005 Foru Aginduan. Horrela, bai alta komunikazioetarako eta bai aldaketak jakinarazi behar direnerako, epe berdina ezarri da, altetarako finkatutakoa alegia.

Gauzak horrela, honako hau,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.

Aldaketak sartu dira abenduaren 27ko 599Bis/2005 Foru Aginduak, makina edo aparatu automatikoen bidez ustiatzen den jokoaren gaineko zerga helbideratze bankarioz ordaintzeko prozedurari buruzkoak, 3. artikuluan xedatutakoan, eta honela geratu da idatzita artikulu hori:

«3. artikulua. 44D eredua aurkezteko tokia eta epea.

1. 44D eredua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko da, Ondare Eskualdaketen, Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Joko Tasaren Atalean.

2. Helbideratze prozeduran alta hartzeko nahiz aldatzeko eskaera ondorengo epeetan aurkeztuko da 44D eredua erabilita:

a) Helbideratzeak urte naturaleko lehen hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, -otsailaren 20tik martxoaren 5a bitartean.

b) Helbideratzeak urte naturaleko bigarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, maiatzaren 20tik ekainaren 5a bitartean.

c) Helbideratzeak urte naturaleko hirugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, abuztuaren 20tik irailaren 5a bitartean.

d) Helbideratzeak urte naturaleko laugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, azaroaren 20tik abenduaren 5a bitartean.

Altaren ondorengo zergaldietan eta aldaketarik jakinarazten ez den artean, zergadunak aukeratutako kontuan kargatuko da berak adierazitako baimenen zerrendari dagokion jokoaren gaineko zergaren kalkulutik ateratzen den hiruhileko kuota.

3. Zerga kargatzeko aukeratutako kontu bankarioa aldatu nahi izanez gero, zergadunak aldaketa eskaera aurkeztu behar dio Ondare Eskualdaketan, Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Joko Tasaren Atalari, 44D eredua dela medio. Eskaerak eragina izan dezan bai dagokion hiruhilekoan eta bai hurrengoetan, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako epe berdinetan aurkeztuko da 44D eredua.

4. Zergadunak helbideratze bankarioaren prozedura utzi nahi badu, baja emateko eskaera aurkeztu beharko du 44D eredua erabilita. Baja eskaerak eragina izan dezan bai dagokion hiruhilekoan eta bai hurrengoetan, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako epe berdinetan aurkeztuko da 44D eredua».

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko urriaren 31.—Pello Gonzalez Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.
(8163) (12619)